



KUTXA Enplegatuen Elkartea	Xenda-zaletasun atala
119. zka 7. etapa GR-38	Otxandio-Durango/2016-10/15-16

Adiskide mendizaleok:

Gr-38ren zazpigarren etapa egingo dugu, Otxandio eta Durango arteko zatia. Plaza nagusitik abiatuko gara, han daude pilotalekua eta udaletxea, iparraldera joango gara eta gero Oletara bideratuko gara. Honela Ollargain mendi-lepora iritsiko gara, izen bereko mendipean, hura inguratu eta Urkiolako Parke Naturalean barneratzeko.

Urkiolako Parke Naturalak 1989ko abenduaren 29an jaso zuen izendapen hori. Parkea Aramotz mendilerroak, Durangaldeko mendiek eta Arangio mendilerroak osatzen dute, eta horiek banatzen dituzte Kantaurira edo Mediterraneo aldera doazen urak. Eremua 5.768 ha-koa da, zortzi udalerri hartzen dituelarik (zazpi Bizkaiko lurralde historikoan eta bat Araban): Abadiño, Amorebieta-Etxano, Atxondo, Dima, Durango, Izurtza, Mañaria eta Aramaio, azken hau Araban. Abadiño da Parkeko udalerri handiena (%22).

Urkiolako paisaia landare-geruza zabalak estaltzen du. Hainbat landare-komunitatez osatua dago, beren garrantziagatik basoak nabarmenduz (3.200 ha). Basoen masa osoaren erdia baino gehiago (1.680 ha) berezko basoak dira: pagoak, arteak, haritzak, urkiak eta ametzak; gainerakoa landaturiko koniferak dira, batez ere.

Ingurune polit honetatik Urkiola Gainera iritsiko gara, bide-gurutze garrantzitsua. Gure hurrengo urratsek Santi Gaztelu baserriraino eramango gaituzte eta aurrerago San Martin basilizaraino, leku paregabea bidean geralditi bat egiteko. Gero Mañariara jaitsiko gara, herria zeharkatu eta jada oso hurbil dagoen gure helmugara, Durango herrira, zuzenduko gara.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Otxandio-Durango

Beharrezko denbora	5,15
Goranzko desnibel metatua	850 metro
Beheranzko desnibel metatua	665 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	19.450 metro
 Inguru 1  Orientazioa 1  Joan-etorria 1  Esfortzua 3	

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus geralekua 17/24) eta Pio XII.aren plaza (Bus geralekua 24/27)
Aurkezteko ordua	07:25 (Bilbo plaza) eta 07:30 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	07:30 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2016-10-13ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.

b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

